



Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa

MEMORIA

2017



KONFEKOOP



KONFEKOOP

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA

Orr.

| | |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| GIZARTE ORGANOAK ETA KOOPERATIBEN ERROLDA | 7 |
| SARRERA | 13 |
| 1. BAZKIDE DIREN FEDERAZIOAK | 18 |
| 1.1. ERKIDE – Euskadiko Lan-elkarte, Irakaskuntza, Kontsumo eta Kreditu Kooperatiben Federazioa..... | 18 |
| 1.2. ENKF - Euskadiko Nekazaritza-elikagaien Kooperatiben Federazioa | 21 |
| 1.3. EGKF - Euskadiko Garraiolarien Kooperatiben Federazioa | 23 |
| 2. EGITASMO ETA LANKIDETZA HITZARMENA EUSKO JAURLARITZAREKIN..... | 24 |
| EUSKADIKO KOOPERATIBEN LEGEAREN ERREFORMA | 24 |
| 3. ELKAR-LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK | 25 |
| 3.1. EKGK – Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua | 25 |
| 3.2. Elkar-Lan Koop. E. - Kooperatibak Sustatzeko Sozietatea | 25 |
| 3.3. Elkargi EBS - Elkarren Bermerako Sozietatea | 26 |
| 4. LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK | 28 |
| 4.1. NAK - Nazioarteko Kooperatiba Aliantza | 28 |
| 4.2. EGES - Euskal Gizarte Ekonomiaren Sarea | 28 |
| 4.3. ETESS Proiektua - Gizarte Ekonomiaren Mugaz Gaindiko Eskola..... | 29 |
| 5. ORDEZKARITZA INSTITUZIONALAK | 30 |
| 5.1. EGAB – Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea | 30 |
| 5.2. GZEK – Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua..... | 31 |
| 5.3. ISEK - Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua | 32 |
| 5.4. GEK – Gizarteratzeko Euskal Kontseilua | 32 |
| 5.5. CVA – Adikzioen Euskal Kontseilua | 32 |
| 5.6. ENK - Euskadiko Nazioartekotze Kontseilua | 34 |
| 5.7. GA EK - Gizarte Aurreikuspeneko Euskal Kontseilua..... | 34 |
| 5.8. FEK – Familiaren Euskal Kontseilua | 34 |
| 5.9. OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea | 35 |
| 5.10. KONTSUMOBIDE – Kontsumoko Euskal Institutua | 36 |
| 5.11. EUSTAT - Euskal Estatistika Erakundea | 38 |
| 5.12. SPRI – Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia..... | 38 |
| 5.13. Euskadiko immigranteen integrazio eta partaidetzarako foroa | 39 |
| 6. KOMUNIKAZIOA..... | 40 |
| 6.1. WEB: www.konfekoop.coop | 40 |
| 6.2. FOROKOOP – Kooperatiba-Eztabaidarako Foroa..... | 40 |
| 6.3. “Kooperatiba-enpresa” saioa Onda Vasca - Herri Irratian..... | 41 |
| 6.4. Beste hainbat hedabide | 41 |
| 7. KOOPERATIBAK SUSTATZEKO PROGRAMAK | 42 |
| 7.1. EGE – Enpresen Gizarte Erantzukizuna | 42 |
| 7.2. Jarduerak Euskararen esparruan | 42 |

| | | |
|-----------|-----------------------------------------------------------|-----------|
| 7.3. | KNE - Kooperatiben Nazioarteko Eguna | 43 |
| 7.4. | GEEB - Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokia..... | 44 |
| 7.5. | INNOBASQUE..... | 44 |
| 7.6. | Topaketak Estatuko Kooperatiben Konfederazioekin | 44 |
| 8. | HITZARMENAK, LANKIDETZAK ETA BESTE GAI BATZUK..... | 45 |
| 8.1. | ELKARGI EBS | 45 |
| 8.2. | GARLAN, KOOP.E. | 45 |
| 8.3. | ALECOPI, KOOP.E..... | 45 |
| 8.4. | ASEKOOP – SENIOR AHOLKULARIAK..... | 45 |
| 8.5. | EUSKALTEL | 46 |
| 8.6. | IMQ – Igualatorio Médico Quirúrgico | 46 |
| 8.7. | Parte-hartzea hainbat ekitalditan..... | 46 |
| 8.8. | Lankidetzak Mundukiderekina | 48 |
| | IKUSKATUTAKO KONTUAK..... | 49 |



KONFEKOOP



EUSKOOP

KONFEKOOP

GIZARTE ORGANOAK ETA KOOPERATIBEN ERROLDA



KONFEKOOP

GIZARTE ORGANOAK

ARTEZKARITZA KONTSEILUA

2017.12.31n

PRESIDENTEA:

Rosa Lavín Ibarra

ERKIDE

PRESIDENTEORDEA:

Patxi Olabarria Furundarena

ERKIDE

IDAZKARIA:

Pablo Durana Duque

ENKF

KONTSEILARIAK:

Eduardo Fernandez Bodegas

ERKIDE

Mikel Larrea Azpeitia

ERKIDE

Julen Madariaga Otazua

ERKIDE

Iñaki Peña Gómez

ERKIDE

Iñigo Querejeta Merino

ERKIDE

Jon Andoni Ruiz de Zarate Agirrezabalaga

ERKIDE

Juan Bautista Jauregi Iztueta

ENKF

Martin Uriarte Zugazabeitia

ENKF

Gonzalo Saez de Ibarra Mtz. de Estarrona

EGKF

KOOPERATIBEN ERROLDA

2017ko abenduaren 31n federatutako kooperatibak **1.160** dira; Kooperatiben Erregistroan 1.940 Koop. E. eta 1.107 Koop. E. Txiki daude:

| | |
|-----------------------------------------------|----------------------|
| ➤ Kooperatiba motaren arabera: | (Koop. Erreg.) |
| ▪ Lan Elkartek | 997..... 1.133+1.107 |
| ▪ Irakaskuntza..... | 85.....99 |
| ▪ Nekazaritza | 61.....115 |
| ▪ Kontsumoa..... | 10.....38 |
| ▪ Garraiolariak | 6.....41 |
| ▪ Kreditua | 1.....1 |
| ▪ Etxebizitza..... |421 |
| ▪ Beste batzuk |92 |
| ➤ Probintziaren arabera: | |
| ▪ Araba | 176 |
| ▪ Bizkaia | 495 |
| ▪ Gipuzkoa | 489 |
| ➤ Ekoizpen-sektorearen arabera: | |
| ▪ Lehen sektorea edo zuzeneko produktua | 14 |
| ▪ Bigarren sektorea edo eraldaketa | 481 |
| ▪ Hirugarren sektorea edo zerbitzuak..... | 665 |
| ❖ Bazkideak guztira | 1.206.310 |
| ➤ Nekazariak | 9.393 |
| ➤ Lan Elkarreetakoak | 34.837 |
| ➤ Kontsumokoak..... | 1.098.478 |
| ➤ Kreditukoak..... | 10.146 |
| ➤ Gurasoak..... | 53.456 |
| ❖ Langileak guztira..... | 54.667 |
| ▪ Lan-bazkideak | 34.837 |
| ▪ Bazkide ez diren langileak..... | 19.830 |
| ▪ Gizonak | 26.518 |
| ▪ Emakumeak | 28.149 |
| ❖ Fakturazioa | 9.669 ₁ € |
| ❖ Nazioartekotzea..... | 4.856 ₁ € |

| | | |
|-----------------------------------|--------------------------------------------|-------------------------------------------|
| 1. Lehen sektorea 14 | 2. Bigarren sektorea..... 481 | 3. Hirugarren sektorea 665 |
| 1.1. Nekazaritza 9 | 2.1. Eraikuntza 142 | 3.1. Merkataritza 104 |
| 1.2. Basogintza 1 | 2.2. Energia..... 3 | 3.2. Aholkularitza 68 |
| 1.3. Abeltzaintza 4 | 2.3. Kontsumo ondasun fabrikazioa.. 28 | 3.3. Hezkuntza eta prestakuntza 110 |
| 1.4. Meatzaritza 0 | 2.4. Elikagai-industria 53 | 3.4. Finantzak..... 1 |
| 1.5. Arrantza 0 | 2.5. Arte Grafiko industria..... 32 | 3.5. Ostalaritza..... 38 |
| | 2.6. Artisautza 3 | 3.6. Informazioa eta komunikazioa .. 34 |
| | 2.7. Automobilgintza 33 | 3.7. Informatika eta teknologia 27 |
| | 2.8. Kautxu eta plastiko industria..... 12 | 3.8. Instalazioak eta konponketak 40 |
| | 2.9. Industria elektronikoa 50 | 3.9. Garbiketa 5 |
| | 2.10. Zur-industria 21 | 3.10. Ingurumena eta lorezaintza..... 18 |
| | 2.11. Makina-erreminta industria 33 | 3.11. Aisia eta kultura 39 |
| | 2.12. Birziklatze industria 10 | 3.12. Osasuna eta mendekotasuna 35 |
| | 2.13. Sidero-metalurgia industria 57 | 3.13. Aseguruak 0 |
| | 2.14. Ehungintza 4 | 3.14. Hizkuntza zerbitzuak..... 12 |
| | | 3.15. Enpresentzako zerbitzuak..... 40 |
| | | 3.16. Sozialak 25 |
| | | 3.17. Garraioa eta banaketa 59 |
| | | 3.18. Turismoa 10 |



KONFEKOOP



KONFEKOOP

SARRERA

Kontseilari lagun agurgarriak,

KONFEKOOPek, 2017. urteari begiratuta, balantze positiboa egiten du. Hainbat arrazoi daude horretarako, eta, lerro hauen bidez, horietako batzuk marrazten ahaleginduko gara.

Hilabete hauetan guztietan, urrats ugari eman dira, KONFEKOOPek esparru berrietan aurrera egiteko eta erakundeen ordezkartza-egituretan presentzia eta ahotsa lortu ahal izateko, enpresa-munduaren inguruko gure ikuspegia presente egon dadin. Iragan azaroaren 8an, “4/2017 Legea, azaroaren 2koa, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua Sorrarazteari buruzko ekainaren 10eko 5/1981 Legea aldatzen duena” argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Bere artikulua bakarrak Lege horren 6. artikulua aldatzen du, eta, haren arabera, SPRIren administrazio-kontseiluan, enpresen ordezkarietz gain, Gizarte Ekonomiako ordezkari bat egongo da. Bada, aldaketa horri esker, 2018tik KONFEKOOPEN ordezkari bat administrazio-kontseilu horretako kide izango da. Horrela, aspaldi lortu nahi genuen helburu bat beteko dugu.

EKGK, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluarekin urtero antolatzen dugun FOROKOOPEN XI. Jardunaldiaren arrakasta ere ezin pozgarriagoa eta adoregarriagoa izan da. Oraingo honetan, Eusko Legebiltzarreko indar politikoek parte hartu zuten, eta denek ala denek nabarmendu zuten kooperatibismoaren garrantzia.

Oraindik amaitu gabe dagoen ETESS proiektuak Euskadin ekintzaitza kooperatiboa sustatu, partekatu eta indartzeko aukera eman dio KONFEKOOPi, mugaz gaindiko testuinguru batean, Nafarroako eta Pirinio Atlantikoetako lurraldeetako Gizarte Ekonomiaren eta kooperatiben esparruko mugimenduekin lankidetzan.

Ez naiz askoz gehiago luzatuko, honekin batera doan Memorian zehatzago eta luzeago jorratuko baititugu 2017a bete duten gai hauek eta beste hainbat.

Agur esan aurretik, eskerrak eman nahi dizkiet KONFEKOOPEN lan egin eta erakundea ordezkatzeko duzuenoi, kooperatiben egunerokoan lagun eta lider diren Federazioetako kideei, EKGK osatzen duten pertsonen eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiaren zuzendaritzako lan-taldeari. Zuek denak funtsezko aliatuak zarete euskal kooperatibismoa sendotzeko lanean.

Eskerrik asko bihotzez guztioi,

ROSA M^a LAVÍN IBARRA
KONFEKOOPeko PRESIDENTEA

SARRERA

Euskadiko ekonomiak %3 inguruko hazkunde sendoa izan du 2017an, Estatuko ekonomiaren igoeraren bidean.

Euroguneak ere hazkunde nabarmena izan du, Frantziak eta Alemaniak gidatuta, baina emaitza onekin Italian eta Portugalen ere bai. Horrek bultzada handia eman die esportazioei, % 60aren helmuga txanpon bakarraren gunea baita.

Industriak hazkunde handiko garaiak bizi ditu, eta denborak aurrera egin ahala, ematen du joera hori gero eta biziagoa dela, lan-karga handitzen ari diren eskari berriei esker. %8ko erritmoan hazi zen manufakturen sektorea aipa daiteke adibide gisa.

Etxebizitzaren prezioen berreskurapenak eraikuntza-jarduera bultzatu du. 2017an, Servihabitat-en arabera, 75.600 higiezin eraikitzen hasi ziren (%15,3ko igoera), eta 116.000 jabetza eraikitzeke oniritziak eman ziren. Hortaz, aurrerantzean, erritmoa are biziagoa izango da.

Nekazaritzako elikagaien sektorearentzat ere urte ona izan da, hainbeste ezen lehenengo sektorearekiko inbertsiogileen interesa hazi egin den. Horren erakusgarri dira egindako erosketak eta kudeaketa-prozesuen profesionalizazioa. Sektore honetako esportazioek gora egin dute, eta gogotsu ari da garapen teknologikoak txertatzen, hainbat erronkari aurre egin ahal izateko: elikagaien xahutzea, CO2 isurketak, hondakinen murrizketa, hornidura-kate eraginkorragoak, elikagaien segurtasuna eta trazabilitatea eta animalien ongizatea.

Garraioen sektoreak, berriz, DBK Behatoki Sektorialaren arabera, bilakaera positiboa izan du, 17.500 milioi euro inguruko merkatuko balio orokorrenekin 2017ko ekitaldiaren amaieran, hau da, 2016an baino %6 gehiago. 2015 eta 2016an, sektorearen errentagarritasunak hobera egin zuen, eskaeraren igoerarengatik eta erregaien prezioen beherako joerarengatik. Hala ere, 2017an gasolioaren garestitzeak operatzaileen marjinak beherantz bultzatu ditu epe motzean.

Horrenbestez, oro har, egoera ekonomikoa ona izan da, eta ondorioz, langabezia-tasak behera egin du, %10,5eraino Euskadin.

KONFEKOOPEN barruan dauden sektore ekonomikoetako kooperatiben emaitza onen eta Euskal Kooperatiben Mugimendua sendotu duten enplegu berrien sorreraren arrazoi nagusietako bat da hori.

Euskadiko Kooperatiben federazio sektorialen bilgune den KONFEKOOP erakundeak euskal kooperatibismoaren bidezko helburuak ordezkatu eta babesteko lan handia egiten du.

Euskal kooperatibismoaren ordezkari den erakunde ugarietan egin du lan hori guztia, hala nola Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean (EGAB), Laneko Segurtasunerako Euskal Erakundearen (OSALAN), Kontsumoko Euskal Institutuan (KONTSUMOBIDE), Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT), Euskal Herriko Nazioartekotze Kontseiluan, Euskal Gizarte-aurreikuspen Kontseiluan, Gizarteratzeko Euskal Kontseiluan, Familiaren Euskal Kontseiluan, Industria-segurtasunaren Euskal Kontseiluan, FoARSEn, Gipuzkoa GEK Foroan, Innobasquen, Ziurtagiri Elkartean, Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokia...

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluarekin batera, FOROKOOP - Kooperatibaeztabaidarako Foroa bultzatzen du. Foro honen bertsio birtualak oihartzun zabala izan du sare sozialetan (Facebook, Twitter eta Instagram). Urriaren 18an egin zen FOROKOOPEN XI. jardunaldia, Bilbon, "Euskal alderdi politikoak eta kooperatibak" izenburupean. Eusko Legebiltzarrean ordezkariak daukaten bost alderdi politikoetako ordezkariak bat etorri ziren Kooperatiben eta Euskadin daukaten ezarpenaren garrantzia aitortzeko orduan. Jardunaldian, halaber, Iñigo Urkullu lehendakaria, Maria Jesus San Jose Lan eta Justizia sailburua eta Juan Torres Sevillako Unibertsitateko katedradunak parte hartu zuten.

Mugaz gaindiko ETESS (Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Mugaz Gaindiko Eskola) proiektuan parte hartzen du KONFEKOPEK, beste 3 bazkiderekin batera: ANEL, Nafarroako Gizarte Ekonomiako Enpresen Elkarte, Bassin d'Emploi du Seignaux batzordea eta Hendaiako udala. ETESSek, funtsean, ekintzailtza kolektiboaren esparruan eta eragileen mugaz gaindiko sare baten sorreran lan egiten du.

Prentsaurreko bat egin zuen, Eusko Jaurlaritzarekin eta MONDRAGONEkin batera, Kooperatiben Nazioarteko Egunean, Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak eta NBEk prestatutako urteroko nazioarteko mezu kooperatiboa zabaltzeko. Hedabideen bidez, Euskal Kooperatiben Mugimenduaren neurria eta ezarpen zabalaren berri ematea da ospakizun honen xede nagusia. 2017an, NAKen mezuak gizarteratzearen ideia zeukan ardatz.

Horrez gain, KONFEKOPEK kooperatibismoa ezagutzera emateko komunikazio-programa handi bat landu du, hala prentsan nola irratan.

Gai hauek guztiak eta beste hainbat gehigarri izan dira KONFEKOPEK ekitaldi honetan egindako lanaren oinarriak, eta 2017ko Memoria honetan horien inguruko xehetasun guztiak dituzue.



EUSKOOP

KONFEKOOP

- 1. BAZKIDE DIREN FEDERAZIOAK**
- 2. EGITASMO ETA LANKIDETZA-HITZARMENA BERRESKURATZEA**
- 3. LEGEGINTZA ETA ARAUGINTZA PROZESUAK**
- 4. ELKAR-LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK**
- 5. LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK**
- 6. ORDEZKARITZA INSTITUZIONALAK**
- 7. KOMUNIKAZIOA**
- 8. KOOPERATIBAK SUSTATZEKO PROGRAMAK**
- 9. HITZARMENAK, LANKIDETZAK ETA BESTE GAI BATZUK**

1. BAZKIDE DIREN FEDERAZIOAK

1.1. ERKIDE – EUSKADIKO LAN-ELKARTE, IRAKASKUNTZA, KONTSUMO ETA KREDITU KOOPERATIBEN FEDERAZIOA

2017an, ERKIDek jarduera ugari garatu ditu, eta atal honetan lan horien guztien laburpena jaso dugu, jarduera-ildotan banatuta.

A. Enpresa-esparrua

- ERKIDEn bazkide egin ziren Kooperatibek ELKARGiren “bazkide partaide” gisa alta emateko izan zuten kostua bere gain hartu du, haren zerbitzuak eskuratzeko aukera izan dezaten.
- SAIOLANen parte-hartze handia izan du, bazkide akziodun den heinean. SAIOLANEK 16 enpresa-jarduera berri sortu ditu, horietako 6 dibertsifikazio-proiektuak izan dira eta 10 enpresa berriak, horietako 3 Kooperatibak, eta 8 bideragarritasun-azterketa prestatu ditu.
- Finantza-erakundeekin (LABORAL KUTXAREKIN eta Nafarroako Rural Kutxarekin) sinaturiko lehentasunezko lankidetzak hitzarmenak kudeatu ditu.
- Gaur egungo egoera ekonomikoa aztertzeko jardunaldi bat antolatu du, 2017ko Batzar Nagusiaren barruan egin zena, 276 pertsonaren parte-hartzearekin.
- Federatutako kooperatiben arteko merkataritza-trukeen atariaren kudeaketa. MerkaERKIDE izeneko atari horretan 365 kooperatibak haien produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta 703 enpresa erosle daude homologatuta.
- SEED CAPITAL BIZKAIA eta HAZIBIDE arrisku-kapitaleko sozietateetan parte hartu du.
- ATEGI erosketen atarian parte hartu du.
- BATERATZEN (pertsonek eta kooperatiben beharrian estrategikoak lerrokatuz) programa garatu du 17 kooperatibatan.
- BERPIZTU izeneko programa bat garatu du 10 kooperatibatan, eskaintza arteztu eta berritzeko.
- Kostuak kalkulatu eta kontrolatzeko metodo bat ezartzeko Kooperatibei laguntzeko programa garatu du, 14 kooperatibatan.
- Enpresaren nazioartekotzea planifikatu eta martxan jartzeari buruzko tailer bat garatu du.

B. Prestakuntza

- Kooperatiba-enpresen Kudeaketan espezializatzeko ikastaroa. 24 zuzendarik hartu dute parte.
- Bazkide langileentzako 2 ikastaro, kooperatiben arloko prestakuntza jasotzeko. 74 bazkide-langilek hartu zuten parte.
- Artezkaritza Kontseiluko kideentzako 2 prestakuntza-ikastaro. 106 kontseilarik hartu zuten parte.
- Ahozko komunikazioa eta jendaurrean eraginkortasunez hitz egiteko 5 ikastaro. Kooperatiben 76 arduradunek hartu zuten parte.
- Sozietateen zergaren prestaketari buruzko jardunaldi praktikoa bat. Kooperatibetako finantza-arloetako 76 arduradunek parte hartu zuten.
- Marketin Digitaleko Planari buruzko jardunaldia. Kooperatibetako arlo komertzialeko 35 arduradunek parte hartu zuten.
- Talde-lanari buruzko tailerra. 16 zuzendarik parte hartu zuten.
- "Nola negoziatu ingelesez bidean hil gabe" izeneko tailerra, 15 pertsonaren parte-hartzearekin.
- "Zibersegurtasunari" buruzko tailerra, 15 pertsonaren parte-hartzearekin.
- Kooperatibak eta Gizarte Segurantzari buruzko mintegia. Kooperatibetako 78 arduradunek parte hartu zuten.
- Euskarri informatikoak erabiltzeko prestakuntza-ikastaroa. 176 bazkide langilek parte hartu zuten.

C. Informazioa

- ERKIDek 44 zirkular igorri dizkie federatutako kooperatibei.
- Teknikariek federatutako 28 kooperatiba bisitatu dituzte, haien kezkek bertatik bertara ezagutzeko helburuarekin.

D. Kooperatiben sustapena

- 138 kooperatiba eratzeko prozesuan parte hartu duen ELKAR-LANI laguntza handia eman dio.
- Kooperatiba sortu berriek finantzaketa eskuratu ahal izateko fondo baten sorrera (EKGK eta ELKAR-LANekin lankidetzan).
- Federazioaren irudia sendotzeko, kanpaina zabala garatu du hedabideen aurrean, batez ere irratian.
- 11.500 pertsonaren artean banatzen den KOOP-Euskal Enpresa Kooperatiboa aldizkariaren 4 zenbaki argitaratu ditu.
- Marketin online kanpaina bat burutu du, batez ere ERKIDERen webgunearen bidez. Guztira, 106.767 orrialde bisitatu dituzten 26.266 bisitari izan ditu.

- LABORAL KUTXAREKIN, SPRIrekin eta MICHELINEKIN lankidetzan, Arabako Enpresa solidarioarentzako XVII. Urrezko Dato saria antolatu zuen. I+MED KOOP.E. izan zen irabazlea.
- Kooperatibismoa sustatzeko kanpaina 40 ikastetxetan.
- ERKIDEREren 2017ko Gizarte Balantzea prestatu du.

E. Zerbitzuak

- 1.038 kasuren inguruko kontsultak jaso ditu edo aholkularitza eskaini du.
- Merkataritza-informazioko eta kredituko zerbitzuak 17 txosten laga ditu.
- ERKIDEREren bazkide diren Kooperatiben Aholkularitzekin lankidetzeta-hitzarmena kudeatu du. Aholkularitza horiek 8 kooperatiba eratzeko laguntza eman dute.
- Mailegu pertsonalen arloan, euskal kreditu-kooperatibekin hitzarmena sinatu du. 38 bazkide-langilek erabili dute hitzarmen hori.
- Hitzarmena sinatu du EROSKI Bidaiak-ekin, eta 196 pertsonak eskuratu dituzte horren onurak.
- Estatutu sozialak edo barne-araudia idatzi edo aldatzeko laguntza eskaini die 11 kooperatibari.
- ELKAR-EUSKARA hizkuntza-arloko laguntza-zerbitzua handitu du, eta dagoeneko 112 dira federatutako kooperatiba parte-hartzaileak.
- Lan-baldintzak eta prebentzioa hobetzeko prestakuntza-kanpaina bat garatu du, 64 kooperatibistarengana iritsi dena.

F. Federazioen errolda

- 2017ko ekitaldian, 53 kooperatibaren hazkunde garbia eman da (133 Kooperatibaren alta eta 80 Kooperatibaren baja).

G. Irakaskuntzako kooperatiben elkarte sektoriala

- Bidaia bat egin du Madrilera, 63 parte-hartzaileekin, estatuko hezkuntza-zentroetako esperientziak eta errealitateak bertatik bertara ezagutzeko.
- Barne-araudia ezartzeko beharrezkoa den aholkularitza-lana eskaini zuen Irakaskuntzako 2 kooperatibatan.
- Jardunbide Egokien 3 bisita egin dira federatutako kooperatibetara, bertatik bertara ezagutzeko. 131 pertsonak parte hartu dute.
- Pertsonen kudeaketari buruzko 2 ikastaro: “*Denboraren kudeaketa*”, 11 pertsonaren parte-hartzearekin, eta “*Aldaketaren kudeaketa*”, 27 pertsonarekin.
- “Zuzenbidea Hezkuntza Zentro Kooperatiboetan” gaiari buruzko lan-saio bat egin du, 55 lagunengana parte-hartzearekin.

- "Irakaskuntzako Kooperatibei eragiten dieten kontabilitate eta zerga-arloko alderdiei" buruzko jardunaldia, 43 pertsonaren parte-hartzearekin.
- "Sozietate-lanaren ondoriozko betebeharrak administratiboak" izeneko jardunaldia, 39 pertsonaren parte-hartzearekin.

H. Kontsumo kooperatiben elkarte sektoriala

- "Ekonomia Kolaboratiboari" buruzko jardunaldi bat antolatu zuen, 112 parte-hartzailerekin.
- "Kooperatiba, proiektu partekatua" izeneko jardunaldia, 22 pertsonaren parte-hartzearekin.
- "Gobernantza eta erantzukidetasuna Kooperatiban" izeneko jardunaldia, 25 pertsonaren parte-hartzearekin.
- "Marketin digitalaren oinarriak" izeneko jardunaldia, 2 pertsonarekin.
- Kooperatiben eraldaketa digitalari buruzko 2 ikastaro, 40 pertsonaren parte-hartzearekin.
- Nagusientzako Bizikidetzak eta Egoitza Kooperatibei laguntzeko eta aholkatzeko ekintzak, zerga-arloko eta Estatutu eta ordezkari kontuen inguruko gaietan.
- Elikagaien ontziak eta birziklatze-proiektua, hondakinekin lotuta. Ontziak eta zorroak berreskuratzeko sistemak eta horien eragin ekonomiko eta operatiboa eta herritarren sentsibilizazioarekin loturiko ondorioak aztertzen dira.
- PAOS kodearen erreforman parte hartu du (adingabeentzako elikagaien publizitatea auto-erregulatzeko kodea), bere irizpideetako batzuk indartzeko.
- HISPACOOPen bidez, kontsumitzaileentzako informazio-kanpaina nutrizionaletan, "Bizitza osasuntsuaren ohiturak" azterketan eta "Etxeko hondakinen eta elikagaien kudeaketa" gaiari buruzko azterketan parte hartu du.

1.2. ENKF - EUSKADIKO NEKAZARITZA-ELIKAGAIEN KOOPERATIBEN FEDERAZIOA

A. Ordezkaritza instituzionala

ENKFK nekazaritzako elikagaien sektorea garatzeko lan egin du, eragile politiko, ekonomiko, sozial eta sindikalen aurrean. Kooperatiben mugimenduarekin lotutako erakundeetan parte hartzeaz gain, ENKFK ordezkari izan du honako beste erakunde hauetan:

- Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza batzordea
- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Kontseilua
- HAZILUR, Enpresak sustatzeko sozietatea
- Euskadiko Elikaduraren Klusterra

- INNOBASQUE – Berrikuntzaren Euskal Agentzia
- Nazioarteko Nekazaritza Foroa
- ELKARGI EBS
- HAZI
- ELIKA

Halaber, sektoreko kooperatiben interesak ordezkatu, babestu edota aldarrikatzeko harremanak izan ditu instituzioekin (Jaurlaritza, Legebiltzarra eta Aldundiekin).

E. Zerbitzuak

LAN-ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZU MANKOMUNATUA. Kooperatiben jarduera eta, maila guztietan, laneko osasuna eta segurtasuna bermatzea da bere xedea. Horretarako, aholkularitza-lana egiten du, eta ingurune seguru eta osasungarrian lan-baldintza egokiak ezarri eta mantentzeko neurriak sustatzen ditu.

AHOLKULARITZA ZERBITZUA. Kooperatiben garapena bultzatzea da bere egiteko nagusia. Horretarako, aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen ditu (kudeaketa, kalitatea, ingurumena, elikagaien segurtasuna, EGE), merkatuaren eskakizunetara egokituko den enpresa eta kooperatiba-eredu bat ahalbidetzeko.

ZERBITZU JURIDIKOA. Kooperatibek legearen eskakizunak betetzeko laguntza ematea izan da zerbitzu honen xedea. Hain zuzen ere, lan hauek egin dira: Artezkari Kontseilu eta Batzarretan letradu aholkulariaren figura eskaintzea; erregistroko izen-emateak egitea, Estatutuak aldatu eta egokitzea, hitzarmen eta kontratuak idaztea, arbitraje eta kontziliazioetan laguntzea, sozietateak eratu, eraldatu eta bat egitea; txosten juridikoak prestatu eta kontsultak erantzutea; datuak babestea; ikuskaritzetan laguntza ematea; marka eta mota guztietako baliabideak eskuratu eta legeztatzea.

KOOPERATIBISMOA SUSTATZEKO ZERBITZUA. Nekazaritza-elikagaien sektorean kooperatibismoa sustatzea da bere helburu nagusia. Horretarako, bat egiteko, sinergiezt baliatzeko eta kooperatiben arteko ikasketak sustatzeko guneak sortzeaz arduratzen da. Horrekin guztiarekin, Kooperatiben gaineko irudi positiboa zabaltzen du gizartean eta interes-taldeetan.

C. Prestakuntza eta Sustapena

- Kontabilitate eta zerga-arloko itxierari eta Datuak Babesteko Legeari buruzko ikastaroa. 19 parte-hartzaile
- Marketin eta merkaturatzeari buruzko ikastaroa. 20 parte-hartzaile
- Sozietate-zergari buruzko jardunaldia. 19 parte-hartzaile

- Hitzaldia: “Europa eta Kanadaren arteko merkataritza librerako hitzarmena”. 58 parte-hartzaile
- Lankidetzaz HAZirekin ardo-ustiategien kudeaketa ekonomikoari buruzko ikastaroa emateko.
- Elkar-lankidetzarako topaketak
- AGROSMARTcoop Proiektu Europarra. Hainbat prestakuntza eta elkar-lankidetzako jarduerak egin dira Euskadin, Portugalen, Badajozen eta Nafarroan.
- Bidaia teknika Frantziako Alpeetara, 68 parte-hartzaileekin.

D. Behatoki sozioekonomikoa

Aldian behingo inkestak federatutako kooperatiben artean, sozietatearen eta ekonomiaren inguruko informazioa biltzeko.

E. Informazioa

Kooperatibei zein zenbait interes-talderi hainbat gairi buruzko informazioa eskaini zaie aldi behin: kooperatiben eta zerga-arloko legeria, ingurumena, elikagaien segurtasuna, diru-laguntzak, prezioak, nekazaritzako elikagaien eta landa-eremuen inguruko albisteen prentsa-laburpenak, etab.

1.3. EGKF - EUSKADIKO GARRAIOLARIEN KOOPERATIBEN FEDERAZIOA

EGKFK, Euskadiko Garraiolarien kooperatibismoaren berezko eginkizunak betetzeko, honako erakundeetan parte hartu du:

- Araba, Bizkai eta Gipuzkoako garraiolarien elkarteetan; garraio-politikan jarraitu beharreko eredu eta proposamenak helarazi ditu, kooperatibentzat positiboak izan daitezkeen.
- Eusko Jaurlaritzaren garraio-mahaian; Eusko Jaurlaritzaren erabaki eta akordioetan kooperatiben alde eragiteko helburuarekin.
- Bilboko Portuaren Lehiakortasunaren Mahaian; Bilboko Portuan lanerako eskubidea eta baldintza egokiak defendatzeko.
- Arabako garraiolarien arbitraje-batzarrean; sektoreko kooperatiben eta bere bazkideen defentsan, kontsumitzaileen aurrean.

EGKFK gidariak birziklatzeko prestakuntza-ikastaroak (CAP) eta aspaldiko langileentzako garraiolari tituluak kudeatu ditu. Gainera, zenbait produktu elkarrekin erosteko bidea landu du, hala nola gasolioa, gurpilak, olioak eta labaingarriak, aseguruak eta telefono-zerbitzuak.

2. EGITASMO ETA LANKIDETZA HITZARMENA EUSKO JAURLARITZAREKIN

2014ko uztailaren 9an, KONFEKOOPEK eta EKGK-k, Euskal Kooperatiben Mugimenduaren izenean, egitasmo eta lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten Eusko Jaurlaritzarekin. Honako jarduera-esparru hauek aintzat hartzen ditu hitzarturiko lankidetzeta-esparruak:

1. EKMren ordezkari-tza instituzionala Euskadiko ekonomia eta gizarte-arloko kontsulta eta erabakitze-esparruetan
2. Euskadin kooperatiba berriak eta kooperatibetako enplegua sustatzeko emandako bultzada
3. Euskal Kooperatiben arteko elkar-lankidetzeta bultzatzea
4. EKM sustatzeko martxan diren finantza-tresnak indartzea
5. Pertsonen garapena eta trebakuntza, prestakuntza iraunkorraren bidez
6. Kooperatibismoaren hedapena eta ezagutza
7. Kooperatiben kulturaren eta Gobernu Onaren kodeen garapena, gizarte-kohesioa sortzeko helburuz
8. EKGKren sendotzea

II. Hitzarmena garatzeko eta lan hori errazteko, 3 lantalde misto eratu ziren:

- Ordezkari-tza Instituzionalaren taldea (1)
- Kooperatibismoa bultzatzeko eta indartzeko taldea (2, 3, 4, 5)
- Kultura kooperatiboa eta EKGK jendarteratzeko taldea (6, 7, 8)

EUSKADIKO KOOPERATIBEN LEGEAREN ERREFORMA

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailak ekainaren 24ko Euskadiko Kooperatiben 4/93 Legea erreformatzeko proposamena landu du, EKMarekin batera.

Eusko Jaurlaritzarentzat Euskadiko Kooperatiben 4/93 legea aldatuz joan diren lege-testu desberdinak bateratzea da arautze horren helburua nagusia, indarreko araudia sistematizatze eta errazago identifikatu eta erabiltzeko. Horrez gain, zenbait alderdi harmonizatu eta berritzeko asmoa ere presente egon da.

Jarduteko malgutasunaren eta nortasun kooperatiboaren arteko oreka bilatzea, Administrazioarekiko harremana modernizatzea eta Kooperatibaren eta bazkideen erantzukizuna argitzea dira erreformaren xede nagusiak.

3. ELKAR-LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK

Euskal Kooperatiben Mugimenduak Euskadin kooperatibismoa eta kooperatiba-enpresa berriak sustatzeko eta euskal kooperatiben finantza-arloa indartzeko zenbait erakunde estrategikotan parte hartzen du.

3.1. EKGK – EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA

EKGK-k bere 2014-2017 Plan Estrategikoarekin aurrera jarraitu du aurtan. Epealdi horretarako erakundearen oinarritzko lan-ildoak zehaztuta daude plan horretan. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako Egitasmo eta Lankidetzaren Hitzarmenaren garapenean parte hartu du (bere gain dauka idazkaritzaren ardura), KONFEKOOPEKIN batera.

Horrez gain, BITARTU-Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzuaren bidez, euskal kooperatibetan gatazkak konpontzeko prozedurak administratu ditu. BITARTUK 22 arbitrajeta, 37 adiskidetzeta eta 124 gatazkatan esku hartu du. Gainera, bitartekotzaren modalitatea bultzatu du.

Halaber, Eusko Jaurlaritzak igorri dizkion hainbat araudiri buruzko 8 nahitaezko txosten jaulki ditu EKGK-k. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken sailak Euskadiko Kooperatiben Legea aldatzeko abian jarri duen prozesuan parte hartu du, KONFEKOOPEKIN batera.

Kooperatiben azkentzeen arloan, 62 likidazio-espeditetan eta sozietatea eraldatzeko 7 espeditetan parte hartu du EKGK-k.

Interpretazio eta informazio juridiko orokorrari buruzko 4 kontsulta formal eta 324 kontsultari erantzun die.

ERKIDEK eta ENKFK lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dute EKGKrekin, 2016ko ekitaldian lan elkartuko, irakaskuntzako, kontsumoko, kredituko eta nekazaritzako elikagaien arloko kooperatibismoa sustatzeko hainbat programa garatzea helburu duena.

3.2. ELKAR-LAN KOOP. E. - KOOPERATIBAK SUSTATZEKO SOZIETATEA

2017an, ELKAR-LANEK 138 Kooperatiba eratzeko prozesuan parte hartu du. Motaren arabera, kooperatiba gehienak lan elkartukoak izan dira, 130 hain zuzen ere. Horrez gain, 6 etxebizitza-kooperatiba, kontsumoko 1 eta bigarren mailako 1 ere eratzten lagundu du.

Aurreko ekitaldian eratu ziren 153 kooperatiben jarraipena eta tutoretza ere egin du: haien gizarte-organoen bileretan parte hartu du, egin dituzten kontsultei erantzun die, etab.

Zabalpen-lana ere egin du, kooperatiben ereduaren eta sustatzaileek edo haien preskriptoreek mahai gainean jar ditzaketen beharrianetan eredu horrek dituen aplikazioen gaineko ezjakintasuna arinduz. Bisiten kanpaina bat egin du, eta hainbat erakundetara joan da: Udalak, Lanbideren sareko bulegoak, Euskadiko Garapen-agentziak, Notariotzak, Aholkularitzak eta enpresen sustapenarekin loturiko beste erakunde batzuk. Horrez gain, hainbat jardunaldi tekniko eta bilera egin ditu, kooperatiba-arloko prestakuntza eman eta aplikatzekoak diren araudi berriei edo Kooperatibentzat bereziki bideratutako diru-laguntzen programei buruz informatzeko.

ELKAR-LAN beste kooperatiba bihurtzeko asmotan zeuden elkarte batzuetara ere jo du, hala nola familien enpresa, elkarte edo irabazi asmorik gabeko bestelako erakundeetara, bai eta, krisiaren ondorioz, enpresa-berregituratzeen bidez aukera hori mahai gainean jarri dutenengana.

Kooperatiben Enpresa Ekimenen Behatokiaren XII. Txostena prestatu du. Euskadiko kooperatiba-enpresen sustapena hobetzeko neurriak hartzeko prozesua erraztu beharko dute txostenaren ondorioek.

3.3. ELKARGI EBS - ELKARREN BERMERAKO SOZIETATEA

2017an lehia bizia egon da finantza-merkatuan, iaz ikusi ziren portaeren bidetik:

- Europako Banku Zentralaren likideziaren inguruko neurri bereziek indarrean diraute, eta ezohiko likideziarekin “dopatzen” dute merkatua.
- Zeroko interes-tasen ondorioz, kreditua baldintza bereziki merkeetan eskuratzeko aukera dago.
- Finantza-erakundeek marjinen murrizketa bizi dute, eta eragiketa bakoitzarengatik bereziki borrokatzen dute, interesak murriztuz, epeak luzatuz, berme gutxiago eskatuz, arriskuak ez partekatuz.
- Komisioaren kostuak nabarmen garestitzen du eragiketa. Bezeroaren begietara bikoiztu egiten da ordaindu beharreko azken interesa.

ELKARGIrentzat 2017a erronkaz betetako ekitaldia izan da. Merkatuan zeuden arazoez gain, beste hainbat erronkari aurre egin behar izan dio: Elkargi eta Oinarri eta bere pertsonen taldeak bateratzea, prozedurak partekatzea, erakundea finkatzea, eraginkortasuna lortzea, kudeaketa bideratzea, etab.

Merkatuaren testuinguruak 260 milioitik gorako formalizazioen maila batera eraman gaitu, 2016an bi EBSek lortu zuten maila baino %12 txikiagoa, baina 2015eko datuetatik

gertu. Eta kontuan hartu behar da bolumena haziz eta formalizazioen joera hobetuz joan dela.

Arrisku Bizia 900 milioitik gorakoa da, krisiak zirauen bitartean indarrean jarritako zirkulatzaila finantzatzeko eragiketen amortizazioaren erritmoaren eraginpean badago ere oraindik. Baina bada albiste onik: Inbertsioak finantzatzeko eragiketen arrisku bizia mantendu eta hazi egin dela, gure enpresen sarearen osasun onaren erakusgarri.

Emaitzen kontuaren itxiera apur bat positiboa izan da, eta, horri esker, ez dugu Hornidura Teknikoen Fondoa kontsumitu behar izan, krisi garaian formalizatutako eragiketen azken astinduak eta arrisku-zorroaren hornidura handitzera behartzen gaituzten azken araudi aldaketak gorabehera. Baliabideen kudeaketa honen ondorioz lortutako %16tik gorako kaudimen-mailari eta likideziari esker, oraingo eta etorkizuneko konpromiso guztiei aurre egiteko aukera egongo da.

“OINARRI-Gizarte Ekonomia” marka darabilen Gizarte Ekonomiaren Dibisioak bere lanekin aurrera darrai, eta kooperatibei finantzaketa errazteko hitzarmenak sinatuta ditu KONFEKOOP, ERKIDE, EKGK eta ELKAR-LANekin.

Urtebeteko ibilbidearen ondoren, EBS sendoago bat daukagu, gure enpresen errealitateak behar dituen helburuekin bat datorrena, eta Kooperatibismoaren eta Gizarte Ekonomiaren baloreekin ondo identifikatuta dagoena.

4. LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK

4.1. NAK - NAZIOARTEKO KOOPERATIBA ALIANTZA

Azaroaren 14tik 17ra egin zen Biltzar orokorra, Kuala Lumpurren, Malaysian. Azaroaren 17ko NAKen Batzar Nagusian, Junta osorik berritu zen (hura osatzen duten 24 kideetatik, 11 europar), eta Ariel Guarco argentinarra izango da presidente berria.

Horrez gain, hautaketa-prozesu bat martxan da, Charles Gould gaur egungo zuzendari nagusiak 2017aren amaierarako iragarri baitzuen bere erretiroa.

Cooperatives Europek (NAKen Europako atalak) apirilaren 27 eta 28an egin zuen bere Batzar Nagusia Maltan. Bertaratutako guztiok aukera izan genuen Europan kooperatiben enpresa-eredua indartzeko bide berriak aztertu, garatu eta hausnartzeko. "Beharrizanetik errealitatera: EBko kideen erronketarako konponbideak" izenburupean, Europako Kooperatiben papera izan zen mintzagai, eta kooperatiba-eredua lan eta hazkunde aukeren iturri izan dadin batasuneko kideek elkarrekin egin ditzaketen ekintzak aztertu ziren.

Batzarrean, Cooperatives Europe-n batzordea berritu zen, eta aurrerantzean, Jean Louis Bancel Coop FR-ren ordezkaria izango da presidentea. Aurrerantzean ere COCETaren ordezkaria Malena Riudavets izango da.

4.2. EGES - EUSKAL GIZARTE EKONOMIAREN SAREA

EGESen jarduerak 2016an ireki zituen bi lan-ildoak izan ditu ardatz.

EGES osatzen duten erakundeak Bilbon 2018ko urrian egingo den GSEF2018, Global Social Economy Forum, ekimenaren Tokiko Batzorde Antolatzailean daude. EGESek hitzaldi zein enpresa-ibilbideen inguruko edukien proposamen bateratuak landu ditu ekimen horretarako.

Horrez gain, otsailaren 8an, BBFn "Gizarte-ekonomiaren egitekoa tokiko garapenean" gaiari buruzko mintegi bat egin zuen, GARAPEN Euskal Garapen Agentzien Elkartearekin lankidetzan. Jardunaldi horretan Gizarte Ekonomiako enpresa, garapen-agentzia eta unibertsitateetako 45 lagunek parte hartu zuten. Jardunaldiaren ondorioek hainbat lan-ildo ekarri dituzte mahai gainera, eta GARAPEN eta EGES horietan lanean hasi dira.

4.3. ETESS PROIEKTUA - GIZARTE EKONOMIAREN MUGAZ GAINDIKO ESKOLA

Europar Batasuneko POCTEFA programarako Feder Fondoen barruan, eta Sarea osatzen lagundu zuen aurreko proiektuaren jarraipena izan dadin, KONFEKOOPEK ETESS - Gizarte Ekonomiaren Mugaz Gaindiko Eskolan parte hartzen du, honako bazkide hauekin batera:

ANEL, Nafarroako Lan Sozietateen eta Lan Elkartuko Kooperatiben Elkarte

Ville d'HENDAYE, Hendaiaiko Udala

CBE, Comité de Bassin d'Emploi du Seignanx

Proiektu honekin KONFEKOOPEK mugaz gaindiko lankidetzari indartu nahi du, eta, potentzial endogenoa lantzeko daukaten trebakuntzari esker, tokiko eragileen enplegurako sarbidea hobetu, lurralde mugakideen beharrei erantzun dieten Gizarte Ekonomiako proiektu berritzaileen sorreraren bidez.

Euskadin martxan jarritako ekimenen artean, nabarmentzekoak dira Debagoiena eta Bilbo Handia eskualdeetan garatu beharreko ekintzaitza kolektiboko ekintzak, SAIOLAN eta KOOPFABRIKAREKIN elkarlanean, "ikasle kooperatibak" ekimena, ERKIDE-Irakaskuntzarekin elkarlanean, eta Gizarte Ekonomiaren mugaz gaindiko ekintzaitza-sare baten sorrera.

5. ORDEZKARITZA INSTITUZIONALAK

Euskadiko Kooperatiben ordezkari instituzionala izatea eta Organo Publikoetan haien presentzia instituzionala bultzatzea dira KONFEKOOPEN helburuak.

Lan hori egiteko, kooperatiba-enpresen interesguneekin loturiko ordezkari-tza instituzionaleko erakunde guztietan ordezkari-tza maila gorena lortzeko lan egin behar du KONFEKOOPek, eta espazio guztietan haren ordezkari-tako baten presentzia ziurtatzeko ahalegina egin behar du.

5.1. EGAB – EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA

2017an jarduera handia izan du batzordeak. Guztira 9 osoko bilkura egin ditu, 7 batzorde iraunkor, gizarte-garapeneko batzordearen 3 bilera, 6 batzorde ekonomikoarenak, 9 memoria sozioekonomikoaren batzordearenak, 18 Europako gaietarako batzordearenak eta 11 ekimen propio-ko azterketa prestatzen duen batzordearenak.

Aholkulari-tza-arloko jarduera moderatua izan du, eta 8 irizpen prestatu ditu:

- Garapen Ekonomiko eta Azpiegituren sailburuaren agindu-proiektua, krisian dauden enpresak berregituratzeko eta berrindartzeko laguntzak zehazten dituen Bideratu Berria programa arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, EAEn behi-haragia eta behi-haragian oinarritutako produktuen etiketatze fakultatiboko sistema bat aplikatzeko neurriak arautzen dituen azaroaren 21eko 235/2000 Dekretua indargabetzen duena.
- 2017-2020 Industrializazio plana, Basque Industry 4.0
- Osasun sailburuaren agindua, Euskadin kokatutako osasun-zentro eta zerbitzuetako gaixoentzako segurtasun-batzordeak garatzen dituenak.
- 2017-2020 Enplegu-ko Plan Estrategikoa
- Dekretu-proiektua, elikagaien enpresa eta denden osasun-baimen eta komunikazio erregimena arautu eta EAeko Elikadura Denden Erregistroa (REACAV) sortzen duena.
- Dekretu-proiektua, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen osaera arautu eta eguneratzen duen ekainaren 23ko 109/205 Dekretua aldatzen duena.
- Osasun sailburuaren agindu-proiektua, Euskadin kokatutako osasun-zentro eta zerbitzuetan gertatutako gorabeheren jakinarazpen-sistema garatzen duena.

EGABek 2017ko Memoria Sozioekonomikoa prestatu eta argitaratu du. Agiri horretan, hainbat iturri ofizialetatik hartutako aldagai sozioekonomiko nagusien sintesi-lan oso bat egin da, eta EGABeko kideek egindako balorazio eta iruzkinak gehitu zaizkio, aipatu datu horiek aztertu, eztabaidatu eta iritzi bateratu bat adostu ondoren. Agiria Eusko

Legebiltzarrari eta lehendakariari aurkeztu zaio. Horrekin batera, EGABen Jarduraren Memoria ere aurkeztu zitzaion Eusko Legebiltzarrari, eta EGABek izan duen aholkularitzalaren balantzea egin zen Legebiltzarreko presidentearen aurrean.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluaren beste eginkizunetako bat bere kabuz azterketak prestatzearena da. “EAEko gazteen enplegu-aukerak eta lan-merkatutarako sarbidea, europar erregioaren ikuspegi alderatutik” gaiari buruzko lan bat egitea erabaki zuen EGABek. Ekimen Propioko Azterketen lan-batzordea 11 aldiz elkartu zen 2017an, lehenengo 5 atalak jorratzeko, eta mahai-inguru bat antolatu zuen, hainbat aditurekin.

2017an hainbat agerraldi egin zituen:

- Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia sailburuak 2017rako EAEko Aurrekontu Orokorren lege-proiektuaren ildo nagusiak aurkeztu zizkion EGABen osoko-bilkurari.
- Arizmendiarreta Lagunen Elkartek bere inklusio-eredua aurkeztu zuen.
- Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia sailburuak 2018rako EAEko Aurrekontu Orokorren lege-proiektuaren ildo nagusiak aurkeztu zizkion EGABen osoko-bilkurari.

Azkenik, aipatu beharra dago EGAB Eremu Atlantikoko, RTAko, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluen eta pareko erakundeen lankidetzarako sarearen kidea dela, eta otsailean RTAko presidentetza hartu zuela bere gain. Sare horrek ardatz atlantikoan interes komuneak diren gaiak aztertzen egiten du lan. 2017an, EGABek europar esparruko gaiari buruzko 18 lan-saiotan parte hartu du. Euskadiri eragiten dioten gaiak izateaz gain, lurralde-esparru zabalagoetan, hala nola esparru atlantiarrean eta Euskadi-Nouvelle Aquitaine euroeskualdean, arazo edo aukera komunak sortzen dituzten kontuak dira. “Bere Ekintza Planaren bitarteko berrikuspenari begira, Estrategia Atlantiarra hobeto ezartzeko gizarte zibilaren proposamenak” izan dira RTAren barruan elkarrekin egindako lanaren fruitu nagusia. EGABek eta esparru atlantiarreko lurraldeetako bere homologoek prestatu eta Bruselan aurkeztu dituzte proposamenok, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen aurrean.

5.2. GZEK – GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUA

EAEko Gizarte Zerbitzuak planifikatu eta ebaluatzeko prozesuan herritarren parte-hartzea ziurtatzen duen aholku-organoa da GZEK.

GZEK ez da behin ere bildu 2017an.

5.3. ISEK - INDUSTRIA SEGURTASUNERAKO EUSKAL KONTSEILUA

ISEK interes sozialen eta industria-segurtasunarekin zerikusia duten jarduerak dituzten sektore nagusien aholku eta parte-hartze organoa da. EAEko industria-segurtasuneko politikaren inguruko prestakuntza, aholkularitza eta jarraipenean parte hartzen du, gai horren inguruko jarduera-planak bultzatuz eta koordinatuz.

2017 osoan ISEK ez da behin ere bildu.

5.4. GEK – GIZARTERATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

Gizarteratze-politikak planifikatu eta ebaluatzeko prozesuan herritarren parte-hartzea ziurtatzen duen aholku-organoa da GEK.

GEK ez da behin ere bildu 2017an.

5.5. CVA – ADIKZIOEN EUSKAL KONTSEILUA

CVA 2017ko ekainaren 14an sortu zen. Adikzioen aurkako borrokan zerikusia duten sektore sozialen parte-hartzea ziurtatzen duen aholku-organoa da, eta adikzioen esparruko Lege-proiektu, araudi eta planen inguruko organo aholku-emailea da.

Euskal administrazioen jardunean duela hiru hamarkada baino gehiago martxan den lan-ildo bati jarraipena ematea da CVAREN helburuetako bat. Horretarako, hainbat arlo landuko ditu: balio, ohitura eta bizi-estilo osasuntsuen sustapena, prebentzioa, arriskuen murrizketa eta adikziodun pertsonentzako arreta.

2016an Adikzioen eta Droga Mendekotasunaren gaineko Arreta Integralari buruzko legea onartzeak organismo honen sorrera erraztu du, eta apirilean sortu zen eta Eusko Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek osatutako Erakundearen arteko Adikzioen Batzordearen bideari jarraitu dio.

CVA martxan jartzearekin batera, aipatu Legean aurreikusita dauden planifikazio, koordinazio eta parte-hartze organo guztiak eratzeko prozesua amaitu egin da. Batzorde honetan euskal gizarte-sektore guztietako 63 pertsona daude, adikzioen aurkako borrokan lan egiteko, eta hori da bere garrantziaren arrazoi nagusia. Parte-hartzaileen artean, prebentzioaren eta arretaren esparruko erakundeak, droga-kontsumitzaileen eta ludopatia eta portaerazko adikzioak dituzten pertsonen elkarteak, adituak eta hedabideetako ordezkariak daude, bai eta erakundeak ere.

Lehenengo bileran, Batzordearen eraketaz gain, beste gai batzuk daude gai-zerrendan:

1. Adikzioen eta Droga Mendekotasunaren gaineko arreta integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen aurkezpena, Euskadin adikzioen arretaren antolaketari, adikzioen prebentzio-lanari eta osasunaren sustapenari buruzko azalpenekin. Adikzioen prebentzio komunitarioaren ereduaren aldeko apustua egin da.

Osasun sailak adierazi du legealdi honetan 1/2016 Legea araudi bidez garatzea aurreikusita dagoela, bi dekreturen bitartez: erakundeen dispositiboari buruzkoa bata eta eskaintzaren murrizketari buruzkoa bestea. CVAREN lehenengo bilera honetan, bi dekretuetako lehenengoa aurkeztuko da. Batzordeak nahitaezko txostena jaulki behar du.

2. Adikzioen eta droga mendekotasunaren gaineko arreta integralaren 1/2016 legean jasotako erakundeen dispositiboa garatzen duen dekretu-zirriborroari buruzko aurretiko txostena jaulkitzea. Dekretu-zirriborroak arautzen du:

- Adikzioei buruzko erakundeen arteko koordinazio batzordea, apirilaren 7ko 1/2016 Legearen aplikaziotik eratorritako jardueretan euskal administrazio publikoaren koordinazioa, lankidetzeta eta parte-hartzea bideratzeko organo nagusia.
- CVA, adikzioen aurkako borrokan zerikusia duten sektore sozialen parte-hartzea bideratzeko organo nagusia, eta adikzioen esparruko Lege-proiektu, araudi eta planen inguruko organo aholku-emailea.
- Adikzioen esparruan Eusko Jaurlaritzari laguntza emateko organoa. Organo horrek adikzioen zerbitzuaren bidez beteko ditu bere eginbeharrak. Haren eginkizunak zeintzuk diren azaltzen du.
- Adikzioen Behatokia, informazio-zerbitzu espezifiko eta zentralizatua, adikzio-gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikia, laguntza emateko organoaren bitartez.

3. Adikzioen VII. Planari buruzko aurretiko txostena jaulkitzea. Plan honek 16 helburu eta 49 ekintza ditu, lehentasunezko 5 arlotan:

- Prebentzioa eta Osasunaren sustapena
- Eskaintzaren murrizketa
- Osasun-laguntza, laguntza soziosanitarioa eta gizarteratzea
- Ezagutzaren kudeaketa eta ebaluazioa
- Lidergoa eta koordinazioa

Planak, halaber, jarraipena egin eta martxan jartzea ebaluatu ahal izateko, emaitzak eta prozesua neurtzeko adierazleak ditu.

5.6. ENK - EUSKADIKO NAZIOARTEKOTZE KONTSEILUA

KONFEKOOPEK kooperatiben nazioartekotzeari laguntzeko ohiko jarduerak egin ditu. 2017an, nazioartekotzearen esparruko euskal enpresen erreferente nagusien eta Eusko Jaurlaritzaren sailaren arteko topaketarik ez da deitu ENKn.

5.7. GAEK - GIZARTE AURREIKUSPENEN EUSKAL KONTSEILUA

Borondatezko gizarte-aurreikuspenarekin zerikusia duten jarduera eta interes sozialen ordezkari diren sektoreen parte-hartzerako aholku-organoa da GAEK. Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza sailari atxikia, 2016ko ekitaldian eratu zen, eta 2017an ez da bildu.

5.8. FEK – FAMILIAREN EUSKAL KONTSEILUA

2017ko ekitaldian, EAEko Familiei laguntzeko erakundeen III. planaren ebaluazioa aurkeztu ondoren, Familietan eta Haurretan inbertitzeko estrategia bat prestatzeko lanak egin ziren. Horren ondorioz, abenduaren 20an, Familien eta Haurren aldeko euskal ituna onartu zen. Aldaketa demografikoa eta euskal gizartearen gaztetzea sustatzeko erakundeen strategiaren garapena bultzatzea da itunaren xede nagusia, familiei eta haurrei laguntzeko politiken bidez. Horretarako, epe motz eta ertainean, hainbat planifikazio-tresna, jarraipen-mekanismo eta lege-garapen martxan jarriko dira hura garatzeko, 10 konpromiso hauen onarpena oinarri hartuta:

- 1 Seme-alabak dituzten familia guztiei gutxieneko baliabide ekonomikoak ziurtatzea eta haurren pobrezia prebenitzea, familia aniztasunarekiko errespetuz.
- 2 Gurasoak haien seme-alabekin behar den denbora guztia egon ahal izateko modua erraztea, familia-beharretara hobeto egokitzen den denbora sozialaren antolakuntza hobea sustatuz, eta gizartearen antolakuntza erantzukidea bultzatuz.
- 3 Gazteen emantzipazioa eta bizitza-proiektu autonomoak bultzatzea, nahi izanez gero, seme-alabak izan ditzaketen familia-unitate berrien sorrera errazteko.
- 4 Gurasotasun positiboarekin, haurren osasunarekin, familien gatazken konponketarekin eta bitartekotzarekin loturiko programak indartzea, gurasoen hezkuntza eta guraso-gaitasunak bultzatzeko, ohitura osasuntsuak sustatzeko eta familien barruan eman daitezkeen arazoak konpontzen laguntzeko.
- 5 Haur guztiek haurrentzako arreta zerbitzu irisgarri, eskuragarri eta kalitatezkoak jasotzeko laguntzak ematea.
- 6 Hezkuntza-politikak birbideratzea eta hezkuntza-sistema inklusibo eta koheziotzailearen eraikuntzan sakontzea, ekitatea ziurtatuko duena eta desabantaila

sozial eta ekonomikoan dauden ikasleen zailtasunak orekatzeko gai izango dena.

- 7 Haur eta gazte guztiei, baldintza berdinetan, baliabide eta ekipamenduen eskaintza zabalagoa eskuratzeko laguntza ematea, sozio-heziketaren, kirolaren, kulturaren eta aisialdiaren arloetan.
- 8 Familia eta haur-politiken gobernantza hobetzea, eta espazio sozio-hezitzaile erreal bat garatzea.
- 9 Erakundeen eta diziplinen arteko lankidetzarako konpromisoa agertzea, gai hauen dimentsio ugariak kontuan hartuta, politika publikoen hainbat arlotan eragina dutenak: genero-ikuspegia, hezkuntza, berdintasuna, osasuna, etxebizitza, gizarte-zerbitzuak, kultura, enplegua, etab.
- 10 Gai hauekin lotura duten eragile pribatuak sentibilizatzea, batez ere lan-harremanetan zerikusi zuzena daukatena, hala nola sindikatuak eta enpresarien elkarteak, ezinbestekoa baita eragile publiko eta pribatuen arteko harremana.

Bestalde, EAEko Familiei laguntzeko Erakunde IV. Plana prestatzeko egutegia zehaztu da. 2018ko lehenengo seihilekoan egingo da, eta haurtzaroak berebiziko garrantzia izango du.

5.9. OSALAN – LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA

OSALANen jardunak hainbat lan-ildo ditu, eta honako hauek nabarmenduko ditugu:

- Lan-arriskuen prebentzioaren kultura zabaltzea eta OSALANen irudia lantegietatik kanpo eramatea, euskal herritar guztiak prebentzioaren garrantziaz jabetu daitezen.
 - 13 prestakuntza-saioren bitartez
 - kanpoko 23 ekitalditan emandako laguntzaren bidez
 - 2 sentibilizazio-kanpaina: “Laneko segurtasuna zure bizitzaren parte izan dadila” eta “Egin dezagun prebentzioaren aldeko apustua: gure inbertsiorik seguruenak”
 - Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko VII. Ikastaroa, EHUko udako ikastaroetan
 - EHUko LAP Masterrean irakastordua eskainiz
 - haurren eta gazteen artean LAP arloko prestakuntza bultzatuz
 - Lanbide Heziketako praktikan LAParen presentzia landuz.
- Arriskuen, arriskuen eta lesioen eragin-eremuaren edo eragin-eremu horrekin loturiko patologien gaineko informazioa edukitzea, lanak eragindako kalteei aurre egiteko eta lan-arriskuen prebentzioa hobetzeko ezinbestekoa baita.
- Lan-eremu berrietan sor daitezkeen arriskuei aurrea hartzeko ahalegina egitea.
- Lan-istripu eta lanbide-gaixotasun maila altuagoak dituzten sektore, jardura eta enpresa tradizionaleri arreta eskaintzea.

- ETE-ei, autonomoei, lehen sektoreari, azpikontratazioari eta behar bereziak dituzten taldeei arreta berezia eskaintzea.
- Lan-arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzea.
- “Aurrerabide” izeneko kudeaketa publiko aurreratuko eredia ezartzea.
- 3.000 bisita eta 1.400 deskargatik gora dituen OSALANEN webgunea eta “Gaztepreben” micrositea eguneratzea, dibulgaziorako eta prestakuntzarako material berriekin.
- 228 istripu ikertu ditu.
 - lan-denboran gertatutako heriotza-istripuak %22,6 murriztu dira 2017an; 2016an 31 izan ziren eta 24ra jaitsi dira.
 - lanbide-gaixotasunen kasuan, 1.365 erregistratu dira bajarekin eta 1.557 bajarik gabe. %14,9ko hazkundea izan da.
- 1.223 prebentzio-delegaturen oinarrizko prestakuntza garatu du.
- 1.485 bisita egin ditu eraikuntza-obretara eta 229 ireki berri diren lantegietara, lehen sektorean (31), industrian (67) eta zerbitzuetan (11)
- Telefonoz egindako 1.660 kontsulta erantzun ditu, 155 aurrez aurrekoak eta 79 ZUZENEAN zerbitzuan, enpresenak, langileenak eta prebentzio-erakundeenak.
- Hainbat txosten eman ditu argitara:
 - Instalazioak jarri, abiarazi, aldatu, berritu edo bertan behera uzteko osasun-baimenetarako 218 txosten, 30 txosten baino gehiago ofizioz, 11 lankidetzatxosten eta prestazio farmazeutikoko 12 eskaera.
 - 603 lan-plan, amiantoa daukaten materialak kentzeko.
 - lanbide-gaixotasunei buruzko 8 txosten, agintaritzak eskatuta.
 - 313 txosten, Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeek eskatuta.
 - 203 txosten Arlo Teknikotik eta 290 Lan-osasuneko unitatetik, Gizarte-segurantzaren Institutu Nazionalarentzat.

5.10. KONTSUMOBIDE – KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA

KONTSUMOBIDE erakunde autonomo bat da, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailari atxikia. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babeserako Eusko Jaurlaritzaren politikak zehaztu, planifikatu, bultzatu eta betetzea da bere helburua.

Bost izan dira 2017an KONTSUMOBIDEREN kudeaketaren ardatzak:

- a) Informazioa. KONTSUMOBIDEREN helburu nagusietako bat da:
 - Argitalpenak: Kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa helarazteko, kontsumoko gaiei buruzko monografiko, liburuxka, gida eta bestelako materialen argitalpenaren bidez. “Kontsumotegia” asteroko informazio-buletina nabarmendu behar da.

- Sentsibilizazioa: Kontsumitzaileei haien eskubide eta betebeharren berri emateko, eta kontsumitzeko orduan gerta daitezkeen arrisku-egoerei buruzko aholkuak emateko, 2017an, KONTSUMOBIDEK dibulgazio-kanpaina bat egin zuen irratian.
 - www.kontsumobide.eus webgunea: 2017an 121.492 bisita jaso zituen.
- b) Kontsumo-arloko prestakuntza:
- KONTSUMOBIDEREN zentroetan. 2.093 prestakuntza-tailer eskaini dira, hezitzaileentzako 2 jardunaldi teoriko-praktiko eta 10 prestakuntza-saio erakunde publikoetan. Guztira 21.450 pertsonak parte hartu dute.
 - Ikastetxeetan. Hainbat ikastetxetan egin den programa ibiltariaren bidez, kontsumoari buruzko 2.650 tailer egin dira. 2.582 ikasleentzat izan dira (2.276 Lehen Hezkuntzako ikasleentzat eta 306 DBHko 1. ziklokoentzat) eta 68 gurasoentzat. Euskadiko 128 ikastetxetan egin diren tailerretan, 53.190 ikaslek eta haien irakasleek parte hartu dute, eta 916 gurasok.
 - Adinduentzat. 43 hitzaldi eta 78 tailer praktiko egin dira. 2.575 pertsonak parte hartu dute bertan (2.000 emakume eta 575 gizon), 64 taldetan banatuta. “Sendagaiak: erabilera arduratsua” izan da gehien eskatu den gaia, eta ondoren, “Elikadura eta nutrizioa” eta “Elektrizitatea eta gasa”. Horrez gain, guztira 19 bisita egin dira, hala ekoizpen edo zerbitzu-zentroetara nola kontsumo-arloko prestakuntza-zentroetara.
- c) Gatazkak konpontzea:
- Kontsumoaren inguruko 46.613 kontsulta erantzun dira Euskadin, horietako 10.032 zuzenean KONTSUMOBIDERI egindakoak.
 - Euskadin kontsumoaren inguruko 23.128 errekamazio tramitatu dira (8.763 KONTSUMOBIDEN, 12.448 KIUB Udal Bulegoetan, eta 1.917 Kontsumitzaileen Elkartean).
 - 143 zigor-espeditente ireki ziren, bai jasotako erreklamazioen ondorioz zein programatutako ikuskapen-kanpainen harira.
 - Erabiltzaileen eta enpresen arteko kontsumo-harremanek eragindako gatazkak konpontzeko bide errazena eta azkarrena arbitrajea da, eta izen-emateen balantzea positiboa izan da, 1.294 enpresa atxiki direlako sistema horretara. Kontsumoko Arbitraje Sistemaren barruan dauden enpresak, guztira, 14.878 dira.
- d) Merkatuaren kontrola:
- Ikuskapen eta kontrol-kanpainak: Gehiegizko klausulak urrutiko bideen bidez formalizatutako kreditu lasterretan, etiketa ekologikoa daukaten elikagaiak (etiketak eta osagaiak), hirugarren adineko egoitzetan zerbitzuak emateko kontratuak (kontratuaren edukiaren legezkotasuna eta gehiegizko klausulak), ustez osasun-

helburuak dituzten produktuak, efizientzia energetikoaren etiketak pneumatikoetan...

- Ikuskatze-ekintzak. 2017an, 1.805 ekintza egin dira, horietako batzuk kanpainen ondorioz eta gehienak honako arrazoiengatik: salaketak, erreklamazioak, SOIVREekin koordinatutako ekintzak, produktu irregularren agerpena edota autonomia-erkidegoen arteko komunikazioak eta inhibizioak.

e) Lankidetzaren beste erakunde eta eragile batzuekin:

- KIUB eta kontsumitzaileen elkarteentzako diru-laguntzak.
- Kontsumoko Aholku Batzordea, 2017an araudi-proiektuei buruzko 16 txosten prestatu zituen.
- AECOSAN eta beste autonomia erkidego batzuk. KONSUMOBIDEK konferentzia sektorialetan eta Kontsumoko Lankidetzaren Batzordean parte hartzen du, eta 4 lan-taldetan ere parte hartu du.

5.11. EUSTAT - EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEA

EUSTATEN 2017ko Urteko Estadistika Programaren laburpena:

- 213 eragiketa estatistiko planifikatu dira.
- Esleitutako aurrekontua 17,4 milioi eurokoa izan zen.
- EUSTATEK 116 eragiketaren ardura zuzena izan du, aurrekontuaren %73,4rekin. Gainerakoa Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuen bidez egiten da, bai eta lehendakaritza eta 3 Foru Aldundien bitartez ere.
- Lan eta Justizia saila Gizarte Ekonomiarentzako interes gehien daukaten 2 eragiketen arduraduna da: Euskal Gizarte Ekonomiaren Estadistika eta Gizarte Ekonomiaren Emaizten aurrerapena.
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailak, aldiz, beste estadistika hau osatzen du: "Erabilera publikoko fundazioen eta elkarten sektorea EAEn".

5.12. SPRI – ENPRESA GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA

Gizarte Ekonomia SPRIn sartzeko Euskal Talde Popularraren legebiltzar-taldeak aurkeztutako lege-proposamenak EKMa aurkeztu eta SPRIn parte hartzeko argudioak jakinarazteko KONFEKOOP legebiltzar-taldeekin egiten ari zen lana sendotu zuen.

4/2017 Legeak, azaroaren 2koa, ekainaren 10eko 5/1981 Legearen 6. artikulua aldatu du, eta beste enpresa-ordezkaritza batzuek gain, Gizarte Ekonomiako ordezkaritza bat sartu da SPRIn administrazio-kontseiluan, KONFEKOOPek proposatuta.

5.13. EUSKADIKO IMMIGRANTEEN INTEGRAZIO ETA PARTAIDETZARAKO FOROA

“Euskadiko Herritar Immigranteen integrazio eta partaidetzarako foroaren” osoko bilkuran batzordeen garapenaren berri ematen da:

- Lan-batzordea. Enplegu-aukeren hobekuntza, aniztasunaren kudeaketa lan-esparruan, tratu-berdintasuna etxeko-lanen zerbitzuan eta sasoikako lana
- Osasun Batzordea. Osasun-arreta eta sarbidea, emakumezkoen genitalen mutilazioaren jarraipena, zurrumurruen kontrako jarduera (euskal osasun-sistemaren gehiegizko erabilera), osasun-arloko profesionalentzako prestakuntza.
- Parte-hartze, Kultura eta Sentsibilizazio batzordea. Euskara, bigarren belaunaldiak, gazteak eta parte-hartzea
- Etxebizitza eta Gizarte-baliabideen batzordea. DSBEaren gorabeheren berrikuspena, Herri Administrazioen arteko datuen konexioak hobetzeko proposamena.
- Hezkuntza Batzordea. Ikasle immigranteen kontzentrazioa, beloaren erabilera ikasgelan, eskola-jantokiak, zurrumurruek geldiaraztea, ikasle immigranteentzako hezkuntza-arretaren II. plana 2016-2020 kultura arteko eskola inklusiboaren testuinguruan.
- Berme Juridikoen Batzordea. Errotze-txostenen, etxebizitzaren egokitze-txostenen eta gizarteratze-ahaleginen txostenen jarraipena. Eta horrez gain, Aholku-Sara eta Eraberean zerbitzuak

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailak jakinarazi du errefuxiatuen kudeaketa Familien Politika eta Aniztasunaren zuzendaritzatik Lehendakaritzara aldatu dela, hain zuzen ere Bakea eta Bizikidetzaren idazkaritzara.

2018-2020 Euskadiko Kulturen Arteko Bizikidetzaren barruan, ekintza-plan bat prestatzeko lanak martxan daude. Eta Immigrazioaren aldeko Euskal Ituna berriro aktibatzea aurreikusten da.

6. KOMUNIKAZIOA

6.1. WEB: www.konfekoop.coop

Webgunea komunikazio-tresna garrantzitsu bat da, eta hura eguneratzeko prozesua abian da. KONFEKOOPEN erakuslehoan, bisitariei euskal kooperatibismoaren ordezkari itzazko instituzionalaren ideia osoago bat eskaintzen zaie.

Webgunea etengabe eguneratzen da, eta, horrez gain, KONFEKOOPEN kontseilari entzatzat eta Federazio entzatzat oso erabilgarria den gune pribatu bat dauka, informazioa eskuratzeko.

2017an, 2.980 bisitari izan zituen, 4.098 saiotan 13.916 orrialde ikusi zituztenak.

6.2. FOROKOOP – KOOPERATIBA-EZTABAIDARAKO FOROA

Mundu osoko kooperatiben aurrean, nazioarteko komunikazioaren esparruko erreferente bihurtzea lortzen ari da FOROKOOP.

Webguneak 2.094 bisita izan ditu. Foroan 8 argitalpen egin dira. 2017an, honako herrialde hauetatik jaso dira bisita gehien webgunean: Estatu Batuak, Kanada eta Brasil. Nolanahi ere, bisiten %67 espainiar estatutik heltzen da.

Webgunera iristeko asko erabili dira sare sozialak, eta kooperatiben sustapen eta zabalpenerako bide egokia dira:

- facebook: 908 jarraitzaile (+37); 261 argitalpen; 2 ekitaldi
- twitter: 1.165 jarraitzaile (+192); 1.203 argitalpen
- instagram: 45 jarraitzaile; 96 argitalpen
- youtube: 11 harpide; 13 argitalpen
- flickr: 7 jarraitzaile; 344 argitalpen

“Euskal alderdi politikoak eta kooperatibak” XI. jardunaldia urriaren 18an egin zen Bilboko Ercilla Hotelean. Euskal Kooperatiben Mugimenduaren aniztasuna erakusten duen bideo bat eskaini zen, eta, ondoren, Juan Torres Lopez katedradunak “Kooperatiba-enpresen papera gaur egungo gizartean” izeneko hitzaldia eman zuen. Horrez gain, mahai-inguru bat egin zen PNV, EH Bildu, Elkarrekin Podemos, PSE-EE eta Euskadiko PP alderdi politikoetako ordezkariekin, eta Euskadiko kooperatibismoaren inguruan daukaten iritzia azaldu zuten. Jardunaldiak, gainera, nabarmentzeko moduko pisu instituzionala izan zuen, Maria Jesus San Jose Lan eta Justizia sailburuaren irekiera-ekitaldiarekin eta Iñigo Urkullu lehendakariaren amaiera-ekitaldiarekin.

6.3. “KOOPERATIBA-ENPRESA” SAIOA ONDA VASCA - HERRI IRRATIAN

KONFEKOOPEK, “Kooperatiba-entresa” saioa eskaintzen du ostegun arratsaldero ONDA VASCA irratian, euskal kooperatibismoaren albiste zehatz bat ardatz duena.

Gainera, KONFEKOOPEN iragarkiak ere eman dira, haren ordezkagarritasunaren zein eskaintzen dituen zerbitzuen ingurukoak.

6.4. BESTE HAINBAT HEDABIDE

KONFEKOOPEKO arduradunei hainbat elkarrizketa egin dizkiete hainbat hedabidetan, eta kooperatibismoarekin loturiko gaiei buruzko iritzi-artikuluak idatzi dituzte, hala hedabideek eskatuta nola ekimen propioz.

7. KOOPERATIBAK SUSTATZEKO PROGRAMAK

Euskal Kooperatiben Mugimenduaren kezka-iturri diren beste esparru batzuk.

7.1. EGE – ENPRESEN GIZARTE ERANTZUKIZUNA

Ekitaldi honetan, esparru honetan jorratu den lanak honako ezaugarri hauek izan ditu:

- FOARSE – EGEAREN ARABAKO FOROaren jardueraren ardatza EGEa ezagutzera ematea da. Maiatzean, EGEaren inguruko bere XI. Biltzarra egin zuen, “Zer ari dira enpresak gaur egun egiten EGEaren arloan?” izenburupean. Instituzioetako ordezkariak presente egon ziren jardunaldian, eta EGEa Kudeaketa Aurreratuaren ikuspegitik lantzen zuen hitzaldi bat eskaini zen. Uztailean argitaratu zen urteko buletinean, XI. Biltzarrean aurkeztutako edukiak eta jardunbide onak jaso dira.
- GEK/RSC GIPUZKOA FOROAN gaur egun ez dago jarduerarik.
- INNOBASQUEREN EGE I-TALDEAK, hastapenetik KONFEKOOPEN parte-hartzea izan duena, gaur egun ez dauka inolako jarduerarik.

7.2. JARDUERAK EUSKARAREN ESPARRUAN

Honako hauek izan dira Kooperatibetan euskararen erabilera normalizatzeko KONFEKOOPEK egin dituen lanak:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura sailarekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren jarraipena egin du (LAN-HITZ programa), euskarak lan-munduan duen erabilera eta presentzia handitzeko.

BIKAIN hizkuntza-kudeaketako kalitate-ziurtagiriaren ebaluazio-sistemaren jarraipena egiten duten organoetan (Artezkaritza Kontseiluan eta “Kudeaketako Batzorde eragilean”) parte hartzen du KONFEKOOPEK. BIKAIN SARIA jaso duten erakundeek lana aitortzeko abenduaren 13an Bilboko EITBren egoitzan egin zen ekitaldira ere joan zen.

BIKAIN hizkuntza-kudeaketako kalitate-ziurtagiriak etapa berri bati ekin dio 2017an, eta, maiatzaren 30ean onartu zen dekretu berriari esker, lan munduan euskara bultzatzearen helburua administrazioetara eramatea izango da bere lehentasunetako bat. Ziurtagiria jaso dezaketen erakundeak bi taldetan banatuko dira: alde batetik, erakunde pribatuak eta sozietate publikoak; eta bestetik, erakunde publikoak. Orain arte bezala, hiru ziurtagiri-maila egongo dira, baina ziurtagiria lortzeko puntu-

kopurua handitu egin da horietako bitan: goi mailako edo urrezko ziurtagiria lortzeko, 800 puntu eskuratu beharko dira (aurretik 700 ziren), bigarren edo zilarrezko mailarako, 500 puntu (aurretik 400), eta oinarritzorako, 200.

2017an 35 enpresa eta erakundek jaso dute sari hau. Horietatik 16k goi mailako modalitatean jaso dute saria, 17k maila ertainean eta beste 2k oinarritzko mailan; horien guztien artean 12 kooperatiba zeuden. 2007tik 348 erakundek lortu dute BIKAIN SARIA: 67k oinarritzko mailakoa, 145ek maila ertainekoa eta 136k goi mailakoa. Sari hau kanpo-ebaluazio baten ondoren jasotzen da, eta ebaluazio horretan bisita bat egiten da erakundeetara eta ebaluazio-taldeak elkarrizketak egiten ditu bertako pertsonekin.

Ebaluazioetan BIKAIN Ebaluazio Klubeko 123 pertsonak parte hartu dute, eta haien denbora eta ezagutza eskaini diete erakundeei, euskararen kudeaketa, presentzia eta erabilera hobetu dezaten. 666 pertsonak osatzen dute BIKAIN Ebaluazio Kluba, jarduera-sektore eta lan-esparru oso desberdinetakoak.

- KONFEKOOP BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAREN ELKARTEAREN “zuzendaritzako kidea” izan da, bazkide diren erakunde erabiltzaileen izenean.

1.361 dira orain arte BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA jaso duten enpresa, saltoki eta erakundeak, horrela banatuta: "bidean" motako ziurtagiriak, 539; "zerbitzua euskaraz" ziurtagiriak, 535; eta "zerbitzua eta lana" ziurtagiriak, 287.

2017an, beste 195 erakundek eskuratu dute ZIURTAGIRIAREN modalitatearen bat Euskal Herri osoan. Ziurtagiriaren jabe diren erakunde hartzaileen artean baja kopurua 89koa izan dela ere nabarmendu nahi dugu.

Urriaren 6an, Donostiako Tabakalera Kultura Garaikideko Nazioarteko Zentroan BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAREN erakunde hartzaileak omentzeko egin zen ekitaldian parte hartu genuen. Bertan, Bai Euskarari Laguna saria eman zitzaion Elkar Fundazioari; horrez gain, BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA eskuratu zuten erakundeen artean, aurten Zergatik modak eta Getariako Fuldain farmaziak saria jaso zuten.

2017an, azkenik, BIKAIN SARI EI eta BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIEI buruzko informazioa igorri zaie federatutako kooperatiba guztiei.

7.3. KNE - KOOPERATIBEN NAZIOARTEKO EGUNA

Uztailaren 1ean, Euskal Kooperatiben Mugimenduak Kooperatiben 95. Nazioarteko Eguna ospatu zuen, goiburu honekin: “Kooperatibei esker, inor ez da atzean geratzen”.

Mundu osoan desberdintasuna hazi eta hazi ari den honetan, komeni da gogora ekartzea horretarako konponbideak badaudela. Horien guztien artean leku nabarmena dauka Kooperatibak. Kooperatiben mugimenduak erakutsi du demokrazia eta gardentasuna oinarri duen bere enpresa-ereduak aukerak sortzen dituela atzean geratzeko arrisku handiena duten horientzat.

Bere printzipio eta balioen arabera, kide izateko baldintzak onartzen dituen edozein izan daiteke kooperatibako bazkide, inolako diskriminaziorik gabe. Parte-hartze ekonomikoa: “Kideek kapital-ekarpen bera egiten diote kooperatibari, eta demokratikoki kontrolatzen dute”. Horrek argi erakusten du, Kooperatibek, kapitala beharrean, pertsonak dituztenez oinarri, ez dutela kapital metatzea ez betiketzen ez azkartzen, eta aberastasunaren banaketa bidezkoagoa ahalbidetzen dutela.

7.4. GEEB - GIZARTE EKONOMIAREN EUSKAL BEHATOKIA

KONFEKOOP GEEBren Aholku-batzordeko kidea da. Behatokiak egiten dituen hileroko informazio-buletinaren eta Euskadiko Gizarte Ekonomiaren egoerari buruzko urteko txostenaren balioa nabarmendu da. Bere jarduera 3 arlotan banatzen da:

- Esparru sozioekonomikoa
- Esparru juridiko-politikoa
- Esparru zientifiko-akademikoa

7.5. INNOBASQUE

KONFEKOOPek, INNOBASQUEko bazkide den heinean, zenbait i-Taldetan (lantaldetan) parte hartu du. 2017an i-Talde horiek ez dute jarduerarik izan.

7.6. TOPAKETAK ESTATUKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOEKIN

2017an, Estatuko eskualdeetako Kooperatiben Konfederazioen arteko laugarren topaketa egin zen, Mallorcan. Topaketan honako hauek parte hartu genuen: KONFEKOOP (Euskadi), COOPCAT (Katalunia), CONCOVAL (Valentzia), FECOMA (Madril) eta FED ILLES BALEARS. Bertan, aurrerantzean ere urtean topaketa bat edo bi egitea erabaki zen, kooperatiben gaiak jorrazteko, eta eratze-bidean dauden Andaluzia eta Galiziako konfederazioei parte hartzeko gonbita helaraztea.

Denok komunean ditugun kezka eta arazoak aztertu ziren, eta harreman estua izaten jarraitzeko konpromisoa hartu zen, konfederazio-erakunde guztien kudeaketarako baliagarria den informazioa eskuratzeko bide aproposa den neurrian.

8. HITZARMENAK, LANKIDETZAK ETA BESTE GAI BATZUK

8.1. ELKARGI EBS

ELKARGI EBSrekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren arabera, KONFEKOOPek bere gain hartuko ditu federatutako kooperatiben finantza-abal eragiketen “%0,5eko formalizazio-komisioa”.

8.2. GARLAN, KOOP.E.

GARLAN KOOP.E.rekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren arabera, GARLAN KOOP.E.ko bazkideek Kooperatibaren Kreditu atalari eskatzen dizkieten maileguen azterketa-komisioa KONFEKOOPek finantzatuko du.

8.3. ALECOPE, KOOP.E.

ALECOPEko eskolako bazkide laguntzaileek jasotako prestakuntza teorikoa indartzea eta osatzea da lankidetzak-hitzarmenaren xedea. Horretarako, KONFEKOOPEN barruko Euskadiko Kooperatiben federazio sektorialetako bazkide den edozein kooperatibatan, laneratzeko gaitasunak eta gaitasun profesionalak praktikan jarri ditzakete bazkide laguntzaile horiek. Hau da, prestakuntza akademikoa osatuko dute, jasotako prestakuntza teorikoaren osagarri izango diren praktika-aldien bidez.

Praktikek ohiko lanaldiaren %50eko iraupena daukate, eta irakastorduetatik kanpo egiten dira. ALECOPEko eskolako bazkide laguntzailearen eta praktikak egiteko aukeratzeko den Kooperatibaren artean ez da inolako lan-harremanik ezarriko.

8.4. ASEKOOP – SENIOR AHOLKULARIAK

Aholkulari Seniorren zerbitzua EKGK - Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren babespean eskaini da 2008tik. Euskal kooperatibismoaren errealitatea askotarikoa da, eta sektore, tamaina eta enpresa zein kooperatiba-arloko garapen ugarietako kooperatibak elkarrekin bizi dira bertan. Zenbait kooperatibaren enpresa eta kooperatiba-arloko garapenari ekiteko ezinbesteko beharra eta erretiratutako kooperatibistek borondatezko lanaren bidez laguntza eskaintzen jarraitzeko nahia izan ziren zerbitzua sortzeko arrazoi nagusiak.

9 urtetako ibilbideak helduarora eraman du zerbitzua, eta 2017an, boluntarioen elkarte bihurtzeko beharrezkoak diren lanak egin ditu. ASEKOOP-ek batez ere kooperatiba txiki edo hasiberriei eskainiko die zerbitzua. Bertatik bertarako laguntza ematen du, eta

aholkulariek kooperatibetako zuzendaritza-karguetan lanean zeudela pilatutako esperientzia helarazten diete Artekarietza Kontseiluei.

Boluntario hauen jakintza, esperientzia eta balioak aprobetxatzeko tresna eta belaunaldien arteko elkartasuna indartzeko bidea izan nahi du elkarteak.

8.5. EUSKALTEL

Federazio sektorialen barruan dauden kooperatiba guztiak EUSKALTELEkin sinatutako hitzarmenean alta emanda daude, hitzartutako abantailak eskuratu ahal izateko. Hitzarmenaren baldintzak KONFEKOOPEN webgunean eskuratu daitezke.

8.6. IMQ – IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO

KONFEKOOPEK IMQrekin sinatuta daukan hitzarmena eguneratu eta handitu du, eta horri esker, federatutako kooperatibek deskontu garrantzitsuak eskuratu ditzakete osasun-asegurua kontratatzen dutenean. Hitzarmenaren baldintzak KONFEKOOPEN webgunean eskuratu daitezke.

8.7. PARTE-HARTZEA HAINBAT EKITALDITAN

Ekitaldi honetan, KONFEKOOPEK hainbat ekitaldi eta bileratan parte hartu du:

- Europa Foruma Ramiro Gonzalezekin, urtarrilaren 11n, Ercillan
- Pilar Garcia Salazar Arabako Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka foru diputatua, urtarrilaren 26an, AFAn
- Xabien Otxandiano Bilboko Udaleko Ekonomia Garapen, Merkataritza eta Enplegu zinegotzia, GSEF2018ren Tokiko Batzorde Antolatzailea eratzeko, otsailaren 6an, Euskaldunan
- B+i Estrategia Liburuaren aurkezpena, otsailaren 7an, Bizkaia Aretoan
- Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua eta Marcos Muro Enplegu eta Gazteriako sailburuordea, otsailaren 8an, Eusko Jaurlaritzan
- Forum Europa Javier de Andrésekin, otsailaren 20an, Ercillan
- EH Bildu legebiltzar-taldea, otsailaren 24an, Eusko Legebiltzarrean
- Elkarrekin Podemos legebiltzar-taldea, otsailaren 28an, Eusko Legebiltzarrean
- Euskal Talde Popularra legebiltzar-taldea, martxoaren 3an, Eusko Legebiltzarrean
- Euskal Sozialisten legebiltzar-taldea, martxoaren 3an, Eusko Legebiltzarrean
- Euzko Abertzaleak legebiltzar-taldea, martxoaren 3an, Eusko Legebiltzarrean

- Arantza Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburua, martxoaren 7an, Eusko Jaurlaritzan
- Marcos Muro Enplegu eta Gazteria sailburuordea eta Borja Belandia LANBIDEREN zuzendaria, martxoaren 8an, Eusko Jaurlaritzan
- Europa Foruma Beatriz Artolazabalekin, martxoaren 15ean, Ercillan
- ELKARGI EBSren Batzar Nagusia, apirilaren 5ean, Kursaal
- ENKFren batzar nagusia, apirilaren 6an, Arkautiko Nekazaritza Eskolan
- Europa Foruma Alfonso Alonso eta Fatima Bañezekin, apirilaren 24an, Ercillan
- Cooperatives Europeren batzar nagusia, apirilak 26-28, Malta
- EH Bildu legebiltzar-taldea, maiatzaren 8an, Eusko Legebiltzarrean
- Elkarrekin Podemos legebiltzar-taldea, maiatzaren 9an, Eusko Legebiltzarrean
- Euskal Talde Popularra legebiltzar-taldea, maiatzaren 10ean, Eusko Legebiltzarrean
- Euskal Sozialisten legebiltzar-taldea, maiatzaren 10ean, Eusko Legebiltzarrean
- Balear Uharteetako gobernuko Enplegu sailburua eta Gizarte Ekonomiako zuzendaria, maiatzaren 10ean, Eusko Legebiltzarrean
- ASLEren Batzar Nagusia, maiatzaren 12an, Donostiako Aquariumean
- Zerga-arloari buruzko mahai-ingurua (hitzaldia), maiatzaren 16an, AFAn
- Global Innovation Day, maiatzaren 16an, Euskaldunan
- INNOBASQUEREN batzar nagusia, maiatzaren 16an, Euskaldunan
- ELKAR-LANEN batzar nagusia, maiatzaren 17an, ELKAR-LANEN
- LKSren batzar nagusia, maiatzaren 19an, Euskaldunan
- Gizarte Ekonomiaren Europako Biltzarra, maiatzaren 23an, Madrilen
- CEPESen batzar nagusia, maiatzaren 23an, Madrilen
- ERKIDEREN batzar nagusia, maiatzaren 24an, Miñao
- FoarSEren XI. Jardunaldia, maiatzaren 25ean, Europa Jauregian
- KONFEKOOPEN batzar nagusia, maiatzaren 26an, Miñao
- Eusko Jaurlaritzako Itziar Agirre Ogasun sailburuordea eta Maitane Romero Zergen Administrazioko zuzendaria, ekainaren 1ean, Eusko Legebiltzarrean
- EGESen batzar nagusia, ekainaren 5ean, Bilboko ASLEn
- COCETAREN batzar nagusia, ekainaren 19an, Madrilen
- Europa Foruma Maria Jesus San Joserekin, ekainaren 21ean, Ercillan
- Europa Foruma Agustin Markaiderekin, ekainaren 26an, Ercillan
- Mugaz Gaiendiko Gizarte Ekonomiaren jardunaldia (hitzaldia), ekainaren 28an, GEZKIn
- Kooperatiben Nazioarteko Eguneko prentsurrekoa, ekainaren 29an, Eusko Legebiltzarrean
- "Gobernantza kooperatiboa" V. Topaketa, uztailaren 7an, HUHEZIn

- MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN 2017-2018 ikasturtearen aurkezpena, irailaren 11n, HUHEZIn
- “Euskadiko eta Nafarroako Gizarte Ekonomiako enpresen finantzaketa” LABORAL KUTXA topaketa, irailaren 14an, Carlton hotelean
- Gizartea eta kooperatibismoa (hitzaldia), irailaren 20an, Palma Mallorcakoan
- Eskualdeko sektorearteko kooperatiben konfederazioen topaketa, irailaren 21ean, Palmako Real Club Nauticon
- Francina Armengol Illes Balearseko Gobernuko presidentea, irailaren 21ean, Palman.
- Europa Foruma Iñigo Urkullu lehendakariarekin, urriaren 2an, Ercillan
- Forokoop XI. jardunaldia, urriaren 18an, Ercillan
- Eusko Jaurlaritzaren Gazteen itzulerarako protokoloa, azaroaren 8an, Eusko Jaurlaritzan
- Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020 Enplegu Plana, azaroaren 9an, Eusko Jaurlaritzan
- “Euskal industriaren erronkak” PWC Jardunaldia, azaroaren 13an, Deustuko Unibertsitatean
- Europa Foruma Idoia Mendia eta Pedro Sanchezekin, azaroaren 20an, Ercillan
- Txemi Cantera saria, azaroaren 23an, Carltonen
- Nafarroako Gizarte Ekonomiaren Eguna Nafarroako CEPESekin, azaroaren 28an, Iruñean
- Nekazaritza eta abeltzantzako ustiaketentzako III. LORRA-LABORAL KUTXA saria, abenduaren 13an, Carltonen
- 2017ko Euskadiko Berrikuntzaren XI. Gida, abenduaren 19an, Guggenheimen
- Mondragon Ander Etxeberriarekin, abenduaren 20an Otaloran
- Gizarte zibilarentzako harrera, abenduaren 27an, Lehendakaritzan

8.8. LANKIDETZA MUNDUKIDEREKIN

KONFEKOOPEK laguntza eta babesa eskaintzen dio MUNDUKIDE Fundazioari, hirugarren munduko herrialde esaten zaien horietan kooperatibismoa sustatzeko ekintzak egin ditzan. Horretarako, bere urteko emaitzen %1ari dagokion laguntza ematen dio.

MUNDUKIDEK Kooperatiben Nazioarteko Egunean antolatu zuen II. Lasterketa Solidarioa ezagutzera emateko lanetan parte hartu zuen KONFEKOOPEK. Kooperatibisten bihotz taupaden oihartzuna hegoaldeko herrialdeetara helaraztea da lasterketaren helburua. 7 kilometroko ibilbidea dauka eta taldetan parte hartu behar da.



KONFEKOOP

IKUSKATUTAKO KONTUAK

BALANTZE LABURRA

| | |
|----------------------------------------------------------------------|---------------------|
| AKTIBO EZ-KORRONTEA | 627.130,82 |
| Ibilgetu ukiezina | 603,82 |
| Ibilgetu materiala | 255.624,43 |
| Bazkidetutako eta Taldeko enpresetan epe luzera egindako inbertsioak | 275.299,40 |
| Epe luzerako finantza-inbertsioak | 95.603,17 |
| AKTIBO KORRONTEA | 2.093.902,05 |
| Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk | 329.670,85 |
| Zerbitzu eskaintzagariko bezeroak | 18.112,44 |
| Beste hainbat zordun | 41.452,07 |
| Diru-laguntzagariko beste zordun batzuk | 270.106,34 |
| Epe motzeko finantza-inbertsioak | 1.348.530,00 |
| Eskudirua eta antzeko beste aktibo likidoak | 415.701,20 |
| AKTIBOA GUZTIRA | 2.721.032,87 |

| | |
|--------------------------------------------------------------------|---------------------|
| ONDARE GARBIA | 2.125.825,78 |
| Fondo propioak | 2.116.429,04 |
| Erreserbak | 2.046.055,58 |
| Ekitaldiko emaitza | 70.373,46 |
| Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak | 9.396,73 |
| PASIBO EZ-KORRONTEA | 392.595,74 |
| Kooperatiben Azkentzeen Ezarpen Fundoa | 306.162,59 |
| Epe luzeko zorrak FAECengatik | 86.433,15 |
| PASIBO KORRONTEA | 202.611,35 |
| Epe motzeko zorrak FAECengatik | 48.530,00 |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk | 154.081,35 |
| Hornitzaileak | 17.897,75 |
| Hornitzaileak, bazkidetutako eta taldeko enpresak | 130.357,93 |
| Beste hainbat hartzekodun | 996,35 |
| Beste zor batzuk Administrazio publikoekin | 4.829,32 |
| PASIBOA GUZTIRA | 2.721.032,87 |

IRABAZIEN ETA GALEREN KONTU LABURRA

| | |
|-----------------------------------------------------------------|------------------|
| USTIAPENAREN EMAITZA | 69.441,96 |
| Negozio-kopuruaren zenbateko garbia | 141.817,03 |
| Jarduera propioen diru-sarrerak | 85.799,09 |
| Zerbitzuen eskaintza | 56.017,94 |
| Jarduera propioen egozpenak | -17,44 |
| Egozpenen diru-sarrerak | 89.939,87 |
| Egotzi beharreko gastuak | -89.957,31 |
| Kontsumoak | -2.811,18 |
| Ustiapenaren beste diru-sarrera batzuk | 178.731,52 |
| Ustiapenaren diru-laguntzak | 114.072,64 |
| Programa berezien diru-laguntzak | 64.658,88 |
| Langile-gastuak | -65.667,03 |
| Ustiapenaren beste gastu batzuk | -159.469,79 |
| Kanpoko zerbitzuak | -21.559,57 |
| Zerga-ordainak | -298,48 |
| Dedikazioa | -61.427,94 |
| Ordezkaritza | -9.083,79 |
| Afiliazio kuotak | -8.120,81 |
| Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk | -22.990,22 |
| Programa berezien beste gastu batzuk | -35.988,98 |
| Ibilgetuaren amortizazioa | -22.141,15 |
| Ibilgetu ukiezina | -62,42 |
| Ibilgetu materiala | -22.078,73 |
| Finantza ibilgetuaren eta beste batzuen diru-laguntzen egozpena | 0,00 |
| Egotzi beharreko diru-laguntzen diru-sarrera | 435.629,08 |
| Egotzi beharreko diru-laguntzen gastua | -435.629,08 |
| Beste emaitza batzuk | -1.000,00 |
| FINANTZA-EMAITZA | 931,50 |
| Diru-sarrera finantzarioak | 931,50 |
| Finantza-gastuak | 0,00 |
| Kaltea eta emaitza finantza-tresnen besterentzeengatik | 0,00 |
| ZERGEN AURRETIKO EMAITZA | 70.373,46 |
| Etekinaren gaineko zerga | 0,00 |
| EKITALDIKO EMAITZA | 70.373,46 |